


TXIKITTO

2011-06 • 121. zenbakia



Oporrekin batera
SANJUANAK!

...eta kitto!

Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkartea
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Ekhi Belar, Koldo Mitxelena
eta Eibarko ikastetxeetako ordezkariak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa eta maketazioa

Ekhi Belar eta Koldo Mitxelena.

Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa,
Ekhi Belar eta Koldo Mitxelena.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako argitalpena



KULTURA SAILA



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Kaixo lagunok **La Salle Isasitik** berriro ere!
Ikusi ez garen denbora honetan ekintza
ugarri izan ditudugu ikastetxean. Aste Santu
aurretik La Salle Astea eta Euskal Astea os-
patu genituen bisita eta ekintza ugarirekin.
Ondoren hara eta ona ibili dira kurtsu ez-
berdinetakoak: 5. mailakoak artzain mun-
dua ezagutzen egon ziren, 1.go mailakoak
ostera Zarautzen egon ziren arrantza mun-
duan murgiltzen, 5. eta 6. mailakoak Txuri
Urdinen patinatzen egon ziren, antzerki ez-
berdinak ikusten egon gara... Ikusten du-
zuen moduan pila bat gauza egin ditugu. Al
eta ahaztu gabe, kurtsu honi amaiera ezin-
hobea emateko Ekainaren 21ean JAIALDIA
ospatuko dugu ikastetxean maila guztien
parte hartzearekin. Kurtsu amaiera ona izan
eta ondo pasa oporrak!!!



Badator ikasturte bukaera eta hemen
gabiltza **Arrateko Andra Mari** eskolan
ekintzak, txangoak, jaialdiak... prestatzen.
Pianojolea izan genuen eskolan eta oso ondo
pasatu genuen berarekin. 5 eta 6.
mailakoek tabako eta alkoholaren
prebentzioa landu dute. 1. eta 2. mailakoek
igeriketa ikastaroa egin dute. Jaialdiak ere
izan ditugu, alde batetik eskolako jaialdia,
2 urtetik 6. mailara bakoitzak bere lantxo
aurkeztu ziguten: abesti, dantza, antzerki,
bertso... Oso emanaldi polita eskaini
ziguten. Beste alde batetik Coliseoan egon
ginen Bertso Jaialdian parte hartzen,

ikasturtean zehar ikasitakoa eta landutakoa
erakusten.

Txangoak ere izan ditugu: 1. eta 2.
mailakoak Azpeitian egon dira Ingurugiro
eskolan euren proiektuak garatzen. 3. eta 4.
mailakoak, berriz, Debabarrena ezagutu eta
aztertzen ibili ziren ikasitakoarekin lotuta.
Eta eskolako denak Arratera joan ginen
hilaren 3an, oso egun polita izan genuen.
Ez pentsatu, baina, oraindik Kutxa espaziora
joateko indarra eta gogoia baitaukagu eta
arratsalde hortan bertan izotz pistan
patinatzeraz joateko ere.


Eta ikasturtea amaitzeko eta jaiei hasiera
emateko eskolako txikienek danborrada
joko digute ekainaren 22an eta lehen
hezkuntzakoek ikasturtean zehar landutako
euskal abestiekin emanaldi txikia eskainiko
digute San Juan sua piztu aurretik.



Maiatzaren 2 eta 3an, **Urkizuko** 1.ziklokoak
Piraten Etxean egon ziren eta oso pozik
etorri ziren. 12an, 2.ziklokoak Antzerki Jar-
dunaldietara joan ziren Unibertsitatara, "Tro-
gloditas" antzerkia ikustera eta egun berean
Urkizuko patruila txikiko haurrek Udala Foroa
izan zuten. 17 eta 18an, 2. ziklokoak Arri-
txulo Aterpetzean egon ziren. 17an ere, 4 eta
5 urtekoak eta 1go zikloko ikasleak Antzerki
Jardunaldietara joan ziren Unibertsitatara
"Ipuinaren bila" antzerkia ikustera.

Maiatzaren 21ean, 6. mailakoak urpeko
ekintzak izan zituzten Izpurua igerilekuan,
eta 23an, Urkizuko 5. eta 6.mailakoak Ber-
tsogintza izan zuten Coliseoan. 24 eta 26an,
H.Hko eta L.H.ko haur guztiak parte hartu
zuten eskolako jaialdian. Zorionak gure ar-
tista txikiei!

Ekainaren 3an, Urkizu eskolako 3, 4 eta 5
urteko txikiek Basondora joan ziren eta pri-
meran pasatu zuten.



Aurkitu 7 animalia hauek:

T	X	E	Z	K	A	Z
X	X	L	Z	T	U	A
A	A	E	A	X	T	L
K	I	H	R	A	A	O
U	D	O	Z	R	K	L
R	L	I	R	U	L	E
R	A	A	O	N	T	A
A	Z		P	T	I	K
U	N	T	X	I	A	A
O	A	E	R	G	I	T

txakurra
 katua
 txerria
 zaldia
 untxia
 tigrea
 leoia

JON RUA 6.A

BILATU IRUDIAK ETA IDATZI MARRETAN LETRA ADIBIDEA: J U L E N

A ↑ B ↑ D ↑ E G H I

J K L M N O P Q R SST T

U Z

LETRAK: J U L E N

IRUDIAK:

6. IDAZIA

↑


Bilatu kolore hauen izenak hizki-salda honetan.

S	J	G	O	R	K	L	I	K	M
N	H	O	R	I	A	D	M	I	B
U	U	M	J	I	K	D	O	A	E
B	A	K	A	U	S	A	R	I	L
E	S	N	Ñ	R	M	A	E	R	T
R	O	D	K	D	R	I	A	R	Z
D	R	M	Z	I	O	O	U	O	A
E	R	G	O	N	R	R	I	G	A
A	A	M	A	A	R	R	O	A	I
L	L	A	I	R	U	Z	E	B	A

- GORRIA
- BERDEA
- URDINA
- MOREA
- BELTZA
- GRISA
- ZURIA
- HORIA
- LARROSA
- MARROIA

Idoia La hidalgo

Lagundu Joneri laberintzik irteera:



Jon Rúa 6.A

Egun batean ume batek amari esan zion:
-Zergatik sartzen duzu pijama almuadaren azpian?
-Ez zimurtzeko.
-Eta zergatik ez duzu amona sartzen?

Miren Gestal



Gizon bat medikuarengana joan zen eta esan zion:
-Mediku jauna, arazo bat daukat. Nire puzkarrek ez dute usainik.
-Hori ez da posible. Bota ezazu bat oraintxe bertan!
-PPPPRRRRRRRRRR!
-Hori larria da. Ebakuntza behar duzu.
-Ipurdian?
-Ez, gizona, sudurrean.

Aner Gisasola



Saharako basamortuan mutiko batek lanpara bat aurkitu zuen. Garbitzean barrutik jeinu bat atera zen:
-Hiru desio emango dizkizut-esan zion.
-Lehenengoa txuria izatea, bigarrena ur asko edukitzea eta hirugarrena nesken ipurdia ikustea ...eskatu zion.

Eta jeinuak mutikoa komuna bihurtu zuen.

Miren Gestal

Hiru lagun daude eta batek besteari esaten dio:

-Niri Ilargira joatea gustatuko litzaidake.
-Niri Martera joatea gustatuko litzaidake, esaten du bestek.
-Niri Eguzkira joatea gustatuko litzaidake, esan zuen hirugarrenak.
Baina, nola nahi duzu Eguzkira joan?, galdetzen dute beste biek.
Gavean joanda.

Aner Gisasola

Txomin euskaraz ikasten ari da.
-Ea Txomik. Nola esaten da puerta euskeraz?
-Atea.
-Oso ongi, eta puerto?
-Ateo.

Izaro El Allali



Haur batek dio amari ikastolatik etxera joandakoan:

- Ama, bi notizia dakartzat zuretzat. Lehenengoa oso ona da: matematikan 10 atera dut.
- Oso ongi, oso ongi!
- Eta zein da bigarren notizia? -galdetzen dio amak.
- Ba, lehenengo notizia gezurra dela.

Iker Unanue

Gizon bat medikuaren kontsultara joan da, eta hor esan dio:

- Mediku, mediku, beherako mentala dut!
- Eta zuk, nola dakizu hori?
- Bada... pentsatzen dudan guztia kaka besterik ez delako!

Ilham el Ayadi



- Pellok atea ireki nahi du, baina ezin du.
- Orduan, bere lagunak zera esan dio:
- Ekarri giltzak, nik irekiko dut! -Bai, tori.
 - Baina Pello... hau supositorio bat da!
 - Orduan, non sartuko nuen giltza!

Huma Rizwan

Gizon batek ahuntza darama sokara lotuta, eta lagun batek zera galdetu dio:

- Nora zoaz txerri horrekin?
- Ez da txerria, ahuntza da
- Barkatu baina ahuntzarekin ari nintzen hizketan.

Ilham El Ayadi

Elefante batek zera galdetu dio gameluari:

- Zergatik dituzu titiak hor goian?
- Begira nork galdetzen duen, zakila aurpegi duen batek!

Huma Rizwan



Ixotu San Juan sua

Amaitu da eskolara joateko sasoa eta udako porrei hasiera emango diete San Juan jaiak. Ofizialki egun nagusia hilaren 24a bada ere, aurreko asteak jai-giroan pasatzeko aukera egongo da herrian eta San Juan eguna inguratzen duten egunak ere potenteak izango dira.

Umeak, urtero bezala, protagonista izango dira herriko festetan. Ekainaren 22a, adibidez, euren eguna izango da. Egunean zehar ferriako atrakzioen prezioa 0,70 eurokoa izango da, eta 17.00etatik 20.00etara umeentzako puzgarriak eta zezen mekanikoa egongo dira Untzagan. Eguna amaitzeko, 19.00etan, Untzagan bertan, 'Zirkoa ezagutuz' antzezlan eskainiko dute Patxin eta Potxinek.

San Juan bezpera da ekainaren 23a eta txapligoa bezala jendearen animoa ere egun hortan doa gora erabat. Tradizioak agintzen duen bezala, dultzaineroak 13.00ean iritsiko dira Estaziñora eta handik kalejira egingo dute Untzagara. Behin hara iritsita, txupinazoa botako da jaiari hasiera emanez. Arratsaldean atsedena hartu ostean, 19.00etan Debako erraldoi eta buruhan-

dien kalejira egingo da Urkizutik. Ez hartu golpe larregirik! Untzagan, 19.30etan, 'Camping Renove' izeneko kale-antzerkia egingo da. Eta gavean... San Juan sua pizteko ordua iritsiko da 23.30etan eta daborrada nagusiak hartuko du ondoren lekukoa!

Umeen danborrada

Umeen txanda hurrengo egunean 19.00etan iritsiko da eta Urkizutik Untzagara danborrada eskainiko dute. Hara heltzean, pregoia irakurriko du Erika Tximeno danbor nagusiak danborradari amaiera emanez. Gavean, bestetik, suzko erroberak kolorez beteko dute Eibarko gaua.

Ez pentsa egun bi hauen ostean jaiak amaitzen direnik. Zapatuan umeentzako parkea egongo da Untzagan 18.00etatik aurrera eta 19.00etan 'Parrandan' antzerkia egingo da Untzagan baita ere. Ordu berean, Urkizutik buruhandi eta erraldoiak igoko dira umeen atzetik korrika. Eguna gora begira amaitzeko, suzko erroberak izango dira Untzagan. Aho zabalik geratuko zarete!





Ponpoia

Bolatxo leun soila dela eman dezake lehen begiratuan, baina zuk eman diezaiokezu nahi duzun izaera. Artilezko ponpoiak egin ahal izango dituzue hurrengo pausoak jarraituta. Di-da batean egingo duzu!

OSAGAIK:

- Kartoia.
- Artilea.
- Guraizeak.
- Orratza (ez da ezinbestekoa).

PAUSOAK:

1-Kartoizko zirkulu bi ebaki. Diametroa ponpoien neurriaren arabera izango da.

2-Zulo borobila ebaki kartoien erdialdean.

3-Artilea zulotik pasa, zuloa guztiz estaliz.

4-Guraizearen punta kartoi bien artean ipini eta inguruan moztu guraizeak zirkulu bien artean mantenduz beti.

5-Artile bikoitza erabiliz kartoi biak banatu, erditik pasa alde batetik bestera eta sendo lotu korapilo txikia eginez.

6-Kartoiak kendu eta ponpoiari forma eman.



SUGEAREN LARRUA

Oihanean Nagda izeneko neska eder bat bizi zen. Halakorik! Mutil guztiak ibiltzen ziren haren atzetik, baina berak Kuruti maite zuen. Kuruti ehiztaririk trebeena zen.

Behin suge pozointsu batek Kurutiri kozka egin zion eta, egun batzu pasata, mutila hil egin zen. Ordurako Nagda haurdun zegoen. Hilabete batzuren buruan suge batez erditu zen eta sugea nagusitu zenean, jakina, inork ez zuen berarekin ezkondu nahi.

Herriko aztia arazoa konpontzen saiatu zen. Sugearen bikotekidea Ida izeneko neska bat izan zitekeela pentsatu zuen. Aztiak basoko etxetxo bat oparitu zion Idari, baldintza bakar batekin: etxean edozein bisitari onartzea.

Goiz batean Idak suge bat aurkitu zuen atarian. Gezurra badirudi ere elkarren lagun handiak egin ziren. Zenbat berriketaldi egin ote zuten!


Idak gutxien uste zuenean, sugeak ospa egin zuen. Eta handik gutxira mutil dotore bat agertu zen. Idak hura ere onartu egin zuen etxean.

Behin batean Ida mutilarekin hizketan zegoela, suge larru bat ikusi zuen beheko suaren ondoan. Mutila ohartu barik, Idak sutara jaurti zuen larrua eta kiskali bezain laster mutilak hau esan zuen:

-”Orain arte erdi gizon erdi suge izan naiz baina hemendik aurrera, zuri esker, gizon osoa izango naiz”.

Mutilak hartu zuen poza! Itxura aldaketari esker bazuen norekin ezkondu. Idarekin, jakina. Ze bikote ederra! Herriko neskak, ordea, oso penatuta geratu ziren, sugeari muzin egiteagatik mutilik gabe geratu zirelako.

Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko.
MEREZI DU...



OSAGAIAK:

- Platanoak (beharko ditugun platanoak kalkulatuko dugu jango duten pertsonen arabera).
- Bainilazko izozkia (edo gustuko dugun beste zapora bat).
- Txokolatea (estaltzeko).
- Txokolatezko fideoak edo almendra pikatuak.
- Esne-gain harrotua.
- Gereziak almibarrean.

Postre gozoa da Banana Splita, oso famatua. Baina etxean merendolaren bat edo lagunekin jaitxo bat egin nahi ezkerro, egokiago da mokadutxoak eskaintzea.

PAUSOAK:

- Platanoen oinarria moztu eta 2,5 zentimetroko zatiak egin. Azala uzten da hobeto maneiatzeko eta zuloa egin mozketa bakoitzean.
- Txokolatea mikrouhinean urtu eta zatitxoak txokolate urtu horren gainean ipini. Ondoren, zati horiek txokolate fideo edo almendra pikatuen gainean ipini. Zatiak sendotzeko, ondoren, hozkailuan sartu 5 minutuz.
- Zerbitzatu baino lehen, zuloa bakoitza esne-gain harroturarekin bete eta gerezitxoak ipini puntan.



Banana Split

mokadutxoak

INTERNETEN...




www.ingurugiroetxea.org

Gure begibistan daukagu dena, baina askotan ez gara jabetzen zein garrantzitsuar den ingurugiroa. Klima aldaketa, bioaniztasuna, mugikortasuna... kontzeptu arraroak dira gehienentzat, baina Azpeitian dagoen Ingurugiro Etxea Museoa horien gainean asko ikasi dezakegu. Gauza asko daukagu ikasteko ingurugiroaren gainean, eta ez gara oso urruti joan behar horretarako. Webgunean ere, klik bat soilik eginez, Azpeitiko museora jauzia egin dezakegu.

eskolarakoliteratura.blogspot.com

Blog honen izenburuan ikusten denez, eskolarako literatura da bere gai nagusia, baina ez da, inolaz ere, hortara mugatzen. Mundu zabala bereganatzen du webgune honek eta esteka asko ditu beste mundu batzuetara joan ahal izateko. Kondaira, bideoak, ipuinak... denetarik aurki daiteke bertan. Gainera, irakurketarako aukeraz gain, kantarako aukera ere eskaintzen da webgunean. Irakurtzea oso dibertigarria izan daitekeela erakusten du.



ARIES

Goatzeko esperientziak biziko dituzu udan. Beti egin duzuna albo batera laga eta gauza berriak biziko dituzu.

TAURUS

Naturarekin kontaktua izango duzu datozen asteotan. Asko eskertuko duzu aire freskoa arnas-tea. Asko gustatuko zaizu!

GEMINIS

Kurtsoa amaitzen bada ere, ez estutu, lagunekin kontaktuan jarraituko duzu-eta. Baita pertsona berezi horrekin ere, ez dizu ihes egingo.

CANCER

Hasieratik amaieraraino uda bikaina pasako duzu. Heldu da atsedenerako sasoia, baina gauza asko egin nahi izango duzu eta ederto aprobetxatuko duzu denbora.

LEO

Jarraitu lagunena aholkua eta esaiotzu benetan pentsatzen duzuna. Zu lasaiago geratuko zara eta, gainera, erantzun positiboa jasoko duzu.

VIRGO

Pozik egoteko sasoia da. Lagunekin momentu politak biziko dituzu udan eta asko gozatuko duzu oportretan. Ondo pasa!

LIBRA

Hainbeste denboran itxaron dituzun Sanjuanak iritsi dira. Kontuz, hala ere, ez erre ipurdia suaren gainean salto egitean!

SCORPIUS

Presta zaitetz uda oso bizia pasako duzu-eta. Ez duzu ia atsedenerako denborarik izango, baina oso ondo pasako duzun seinale izango da hori.

SAGITARIUS

Motxila etxean utzi eta txipa berehala aldatuko duzu. Igerilekua, mendia, hondartza, turismoa... zeinen uda polita duzun aurretik!

CAPRICORNIUS

Abentura handiak biziko dituzu udan. Buruan zenituen gauza asko errealitate bihurtuko dira eta pozez zorutzen ipiniko zara.

ACUARIUS

Asko gozatu ahal izango duzu udan, baina ez ahaztu etxerako-lanak egitea. Ez laga azken egunerako, urduri jarriko zara bestela-eta.

PISCIS

Lagun berri asko egingo dituzu udan eta lotura berezia egingo duzu horietako batekin. Udako maitasunen gainean entzun al duzu zerbait?

ZURE IRITZIA... nire iritzia!

Nagusixen eta umien artian desberdintasun haundixak izaten dirala pentsatzen dogu, baiña zer gertauko zan galdera bardiña egitten badetsagu nagusixari eta umiari? Horrenbesteko aldia egongo ei da?

Udan zer egitteko asmua dakazu? Zelan pasatzen zenduaz en eskolako oporrak?

Arrate Sarasua, ama

Egixa esan ez dot ondo gogoratzen. Badakit asko jolasten nebala lagunekin. Gero, Errioxara juaten giñan, Santo Domingo de la Calzadara, eta han be lagun artian ibiltzen nintzan.

Andoni Argoitia, aita

Amamaren basarrira juaten giñan. Han, jolastiaz gain, lanian be ibiltzen giñan. Aizkoriarekin, txabolia egitten eta basarriko gauzak egitten ikasi neban. Batzutan, lehengusuarekin Bolibarrera juaten giñan astuan erosketak egittera.

Oiher Iriondo, semea

Ahalik eta onduen pasatzia da nere asmua. Igerilekuan, foballian... ibiltzia nahiko neuke. Gero Kanariar Irletara juango gara. Birrittan izan naiz han eta igerilekuan baiñatzia gustatzen jata.

Amaia Argoitia, alaba

Hondartzara juateko gogua dakat. Gero, Tarragonara astebete joateko asmua dakagu, Cambrils aldera uste dot. Han hotelian pasako dot denbora, hango igerilekuan.





Hi haiz hi, pirata

Zer ezizen jarriko zenioke Gillermo Bandera Beltz izeneko norbaiti? Bada, Pirata, nahitaez. Piratak ez du itsasoan barrena nabigatzeko belaontzirik, baina bederatzi urteko mutiko honek neurritz gainera irudimena du, eta, irudimen horri esker, baikortasunez aurre egite die helduek sortzen dizkieten egoera nahasiei.




Ezin du. Eta zer?

Aitak alabari esan eta esan ari zaio super-neska bat dela. Baina alabak badaki ez dela egian, super-neskek hegan egiten baitute, eta berak ez daki hegan. Saiatu da bere indar guztiakin, aitari ez huts egiteko, baina ezin du.



Esan ama, nork egiten ditu umeak?

Behin batez hauxe galdetu zion Tutu sagutxoak amari: "Esan, ama, nork egiten ditu umeak?". Sagu-eskolan maisuak azalduko die ikasleei landareak, animaliak eta gizon-emakumeak nola ugaltzen diren, baina ikasgairik garrantziskoena Didi Satordi satorrarekin ikasiko du Tutuk, aurreneko aldiz musukatzen duenean.



Tristan triste

Tristan pailazo bat da eta gortinaren atzetik agertu orduko, umeei barrea eragiten zien. Eguberrietako saioan, ordea, Tristanek ipuin bat kontatzen die umeei, baina ipuin horretan Tristan bere bitzta tristea kontatzen die. Eta Tristan triste zegoen.



Jara live

Jara izan zen Austrolopitekus taldeak egin zuen bideoklipeko protagonista. Ihintza lagunak berri handia dauka berarentzat: Austrolopitekusek Lekeitio inguruan egingo den Gazte Kanpaldian kontzertua eskainiko du. Hara joango dira lagun biak musikaz gozatu eta denbora polita pasatzera.



Ritak nobioa du

Rita eta Berta lagun minak izan dira txikitatik, uste zuten mundu osoan ez zegoela beraiek baino lagun hoberik. Baina gauzak erabat aldatzen dira Bertak nobioa izatea erabaki eta Ritari laguntzeko eskatzen dienean. Rita saiatuko da lagunaren esana betetzen, baina nahaste baten ondorioz, Berta haserretu egingo zaio.

